

atara miñe '09

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK



atara miñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

AZALAREN IRUDIAREN EGILEA

Oier Andueza Antxia

ISBN: 978-84-93617-2-1
Lege gordailua
Depósito legal
Dépot légal
NA-3264-2009

ataramiñe 2009

COPYLEFT
Publikazio hau copyleft erakoa da. Beraz, bere edukiak zabaldu, aipatu eta hitzez hitz kopiatu daitezke, osorik zein zatika, edozein medio erabiliz eta edozein helburu lortzeko, ohar hau mantentzen eta jatorria aipatzen den bitartean.

Aurkibidea

Hitzaurrea: Oskar Barreras Diaz **5**

Aitzol Iriondo Iarza: Kartzelako xelebrekerik **9**

Arnaltz Gisasola Olaeta: Poema **15**

Iñaki Gonzalo Casal, Kitxu: Ataramiñe dela eta **17**

Iurgi Garitagoitia Salegi: Ilargi berri bat eta beste poema batzuk **23**

Naiara Mallabia Sanchez: Poemak **29**

Oier González Bilbatua: La vie un vide immense à recesner- René Char eta beste **35**

Aitor Artetxe Rodriguez: Maitasuna Ta Askatasuna **45**

Alfontso Etxegarai Atxirika: Hordago al juego **47**

Maider Caminos Miranda: Bi hitz eta beste poema batzuk **61**

Patxi Uranga Salbide: Modulo aldaketa **67**

Ibon Meñika Orue-Etxebarria: Nanclaro-klaru **71**

Fernando Alonso Abad: Patriotismo **77**

Asier Kintana Zorrozua: Inozentzia eta beste poema batzuk **119**

Karlos Apeztegia Jaka: Oharkabean, astean bi gutun, etab **127**

Iheslaria: Poemak **137**

Bortxa Urberuaga Arano: Komikiak **141**

Oier Andueza Antxia: Margoak **147**

Nanterreko Euskal Preso Politikoak: Eskulanak **151**

Jokin Urain Larrañaga: Galduen ostatuak –Rainmundorenak– **159**

Haimar Altuna Ijurko: Quartier disciplinaire **173**

Xabier Aranburu Muguruza: Errausketarik ez eta beste poema batzuk **179**

Joseba Lerín Sanchez: Bihotzez eta maitasunez **189**

Sarrera

Jendarte baten gupida maila haren espetxeetan sartuz neur daitekeela utzi zuen idatzirik batek. Eta bai, ulertu ulertzen da esaldiaren esanahia; ez da zuzena alta, ez bederen bere horretan.

Ulertzen da eze, azken batean, hura kokatzen den jendartearen islada baita espetxea; antolaketa orokorreko irudi laburbildua. Ikurra, Nolako espetxea halako jendartea izango dela adierazi nahi duen heinean ulertu ulertzen da esaldia, barrukoa ezaguturik kanpokoari buruzko datuak lor ditzakegula adierazten duen neurrian uler daiteke ulertu.

Halarik ere ez da zuzena esaldia, bada egin beharreko ñabardura hor. Ez da zuzena jendartearen inguruko datuak ezagutu ahal izateko kartzelan sartzea guztiz beharrezkoa ez delako. Haren existentzia bera aski da horretarako. Espetxea existitu izana jendartearen porrot ikurra da, porrotaren adierazgarri nagusienetakoa. Bai behintzat elkartasun eta askatasunean oinarriturik eraiki nahi zen antolaketarena.

Presondegia jendarte babeserako bitartekoa dela esango digute gezur hadienak esaten diren gisan: erarik axolagabeenean. Ez da egia alabaina. Jendarte osoa gatibu eta otzan mantentzeke tresna baizik ez da espetxea. Horra haren betebehar nagusia, behinena: jendartea disziplinatzea. Inorentzako babes eta segurtasuna badakar, gehiengoaren esplotazioan oinarrituriko jendarte ordenarako da, ezarritako ordena horretaz baliaturik pribilegioak lortzen dituzten boteredunen babeserako baino ez da espetxea.

Zitalkeria. Hauxe ñabardura. Hauxe bera hasierako esaldiari eman beharreko zuzenketa: jendarte baten zitalkeri maila da haren espetxeetan sartuz neur daitekeena. Murruek porrot batez hitz egiten dute kanpotik begiraturik, porrot horren tamainaz barrutik ezaguturik. Barrukoa kanpokoaren islada den heinean, kartzelak hierarkia, zapalkuntza, bortizkeria eta alienazioaren gainean eraikitako jendarteaz hitz egiten digu ezin argiroago.

Askatasuna kentzearekin bat duintasuna lapurtzen zaio presoari; libreki harat honat ibiltzeko aukeraz gain, autonomia pertsonala, erabakitzeko ahalmena kentzen zaio (eta jakina: barrukoa kanpokoaren islada bada, kanpokoa barrukoarena). Pertsonaren aktibitate oro behatua, fiskalizatua, goitik ordenatua izaten da presondegiko antolaketa panoptikoaren bidez. Panoptikoa: anaia handia, goiztiarra, kontrol sozialaren paradigma; espetxea maila txikian eraikitako jendarte gisa, jendartea maila handian antolatutako espetxe moldea (islada…).

Gatibuari aktibitate guztiak, garrantzitsuenetik hutsaleneraino, aldez aurretik erabakita datozkie, eglnaren une bakoitza beste batek erabakita. Noiz zer egin, noiz ezer ez; zer noiz egin, zer inoiz ez… Esango digutenaren kontra, gehiegizko programatze honen helburua ez da espetxeko bizitza ordena baten barnean mantentzea, hau zeharkako ondorioa da. Presoari bere bizitzaren gainean inolako kontrolik, inolako erabakitze ahalmenik ez duela ikustaraztea da benetako helmuga; pertsona gisa batere baliorik ez duela, ezertarako balio ez duela sinistaraztea. Bere burarekiko estimua suntsitzea da ezer ez erabakitze honen xedea. Duintasuna kendu, pertsona gisa duen aidurrea ezabatu. Gauzaez bihurtu. Horra asmoa: nork bere burua ezgaitzat hartzea; egoera hau onartu izateraino baino haratago, bere bizitzaren inguruko erabakiak beste batek har ditzan desira izateraino eramatea presoa. Askatasunari berari beldurra izateraino.

Dintasun kentze eta pertsona ezabatze hau bereziki, zorrozki landua da preso politikoaren kasuan. Preso soziala, preso politikoa. Bada gatibuen arteko ezberdintze hau egitea okerra, edo bederen guztiz zuzena ez dela defendatzen duenik, giltzapean dirauen pertsona oro zio politikoengatik dagoela preso. Eta arrazoirik ez zaio falta. Azken batean, inor espetxeratzea erabaki politikoa da, funtsean ezer izatekotan. Gakoa jendarte antolaketan datza; kontu ezin politikoagoa, hura. Eta botere zapaltzaileak ezartzen duen ordenari eusteko darabiltzan aparatu bertitz guzti-guztiak (legea, polizia, epailea, espetxea) jite politikokoak dira. Halandabe, ezein pertsona kartzelaratzeko motiboa finean politikoa dela onartuta ere, kartzelaratu guztien motibazioa ez da berbera. Bada aldea hor, alde nabarmena. Preso sozialak burutu arau haustearen atzean ez dago motibazio

politikorik; militante iraultzailearen kasuan bai haatik. Preso sozialak, araua zalantzan ez jartzeaz gain, funtzionala zaio ordenari: jendartea disziplinatzeko lagungarria. Preso politikoa ez ordea. Honek, jendarte antolaketaren alde hau edo bestea baino, ordena bera du zalantzan jartzen, bere osotasunean du ezegenkortzen. Horrexegatik, preso sozialaren existentzia publizitatzen den bitartean, preso politikoarena ezkutatzen saiatzen da, ukatzen. Inposaturiko legeari muzin eginez bere intsumisioa adierazi eta aldarrikatzen duenak botere menperatzailearen bihotzari hozka egiten diolako, ordena inposatzeko ahalmena ahulduz, zilegitasuna kenduz.

Horrexegatik preso politikoen existentzia ukatu nahi dute, bizitza publikotik haren irudia bera desagerraraziz. Arriskutsuegia suertatzen zaion kolektiboarenganako elkartasun keinu oro kolpatu, horren itsuki kolpatu non sentimenduak ere legez kanpo kokatuko baitituzte, maitasuna zigortu beharreko delitua bihurtuz. Presoari eta harekiko elkartasunari eraso, are itsuagoki botereak haren biziraupena arrisku bizian dakusalarik.

Panorama ilun baino ilunago honetan ordea, badago argi izpia aurkitzerik. Presoak badu haren aurkako ezabatze lan sistematiko horri aurre egiteko era. Pertsonak bere baitan duen ahalmenik ederrenean datza gatibuak eskura duen lanabesik eraginkorrena: sormena. Borrokari tinko eustetik hasita (mendean gaituzten kateak suntsitzeko borrokatzea baita norberak egin dezakeen zereginik kreatiboena), zenbait molde har ditzake sormen lanak: dela autoformakuntza edo formakuntza akademikoa, dela esku-artelana, dela oztopo eta murru guztien gainetik maitasunari atxiki tzea... Dena dela kasu bakoi tzean hartzen duen moldea, sormen lan mota guztiek zera dute amankomunean: bere izaera eta erabakitzeko ahalmenarekin lotzen dutela atzera presoa. Sormen potentziak kontrol panoptikoari ihes egiten dio, itzuri; eta hein horretan, espetxeak lapurtu nahi dizkion estimu eta duintasuna itzultzen dizkio gatibuari. Sormenerako gaitasunean, hortxe du presoak (bere ideia, desio eta ametsekin batera) inoiz kendu ezin izango dioten askatasunaren gotorlekua. Hortxe borrokarako ernamuina, egunez egun kontzientzia eraldatzaileak ureztatua.

Horixe bera da esku artean daukazuna, euskal preso politikoon kolektiboko eskuarte sortzailearen lagin xume bat, gatibuon duintasuna eta izaera berrestera datorren ariketa. Horixe nahi du izan behintzat. Esanguraz zamaturiko ariketa arean, ezein dela abagunea; bereziki esanguratsua bai murruen barruko aldean bai kanpokoanl errepresaliatuok eta gure irudia ezabatzearren makineriako azeleragailua hondoraino zapaltzen ari diren garaiotan. Duintasuna bortizki kolpatua den aldiotan. Elkartasuna zekenki zigortua den sasoiotan. Maitasuna ere ankerki kriminalizatua den uneotan.

Eta elkartasuna norabide biko ildoa denez, zilegi bekit, unetxo batez baizik ez bada ere, orriotan ageri lagunen izenean hitz egiteko atrebentzia ene gain hartzea lantxo honen eskaintza egiteko. Hor kanpoan gau eta egunez, sargori zein euri eta zigorra zigor gure ondoan zaudetenoi guztioi eskaintzeko.

Maite zaituztegu!

Oskar Barreras Diaz
Castello-ko espetxetik



Aitzol Iriondo Iarza
1977
Donosti

2008. urtean atxilotuta.

BOIS D´Arcy - Maison d´arrêt des Yvelines
5 bis, Rue Alexandre Turpault
78.395 Bois d´Arcy

KARTZELAKO XELEBREKERIK

1. [Doinua. "Maritxu nora zoaz?"]

Alberto, nola zatoz
Eder galant hori
"Calla que si lo cuento
jarriko naiz gorri"
Ilean zer daukazu?
Likido txuria
Benga, konta zaidazu
Istorio guztia

2. [Doinua : "Mila bederatziehun ta lehenengo urtian- Orioko balea"]

Amor platonikua
ta lehen bixita
galtzontzilo gorriak
dotore jantzita
ta gomina pote bat
espres erosita
Sorpresa bat ematen
hasi nahi nun zita.

3. Igandez pedidoa
batez "bons de cantin"
zugana agertu nahi
lerden eta pinpirin.
Pentsau nun : "Zein ongi
Ni gominarekin!".
Baina frantsesez nola
deitzen zen ez nekin.

4. Baina ezin galdetu
hortxe komeria
adarjotzeen beldur
hori da egia
"Fixation" noseke bat
hoixe da neria.
Eta hortxe hasi zan
nere aberia.

5. Hau da gauza txikia
ni moskeatuta
"Fixation" pote honek
pinta txarra dauka
lau euro pekuliotik
Mekauen la puta!
Garesti irten behar zait
bixitako looka.

6. Potea irekita
likido zikina.
Gutxi danez ezin gal
frogetan gomina.
Aitziberrek ezin du
hauxe imajina.
Gel hau izango ote da
Beckham-en berdina.

7. Ilea puntan jarri
gel kirastunakin.
Hor noa kidengana
masail gorriakin
lehenengo saludua
"Hombre, zelan Tintin
ze ostia egiten dezu
hortzen pastarekin?".

6. Adarjotzeen beldur
ni dena gordetzen
baina banengon ba ni
ez nintzela zuzen
"Noseke" horren partez
Mekauen la virgen!
Dentadura itsasteko
pasta zikin bat zen!

7. Ta hementxe naukazu
hau xelebre pinta.
Ez naiz bi alkandoraz
etorri jantzita.
Hortzen fijazio pasta
buruan jarrita.
Basaurin birjaio da
berriz´e Txirrita.



Arnaltz Gisasola Olaeta
1977
Gernika

2005. urtean atxilotuta.

OSNY - Maison d´arrêt du Val d´Oise
Route Départementale N 927
B.P. 32 Osny
95.524 Cergy-Pontoise Cédex

POEMA

Lehenengo piraten antzera
mundua bira ostean
belarritako ugari
zapi gorria soinean
oroitzapenak airean
Euskal Herrira bidean.
Ziga-bogaka doa
txalupa xume batean
indar eta kemenarekin
ito gabe arraunean
izarrek mantentzen dute
iparra zeru gainean.
Askatasuna omen du
altxor bere bihotzean
aniztasuna duelako
oinarri bere barnean.

[Habanera doinu luzean]



Iñaki Gonzalo Casal, Kitxu
1964
Getxo

1994. urtean atxilotu zuten.
Liburu ugari argitaratu ditu orain artean:
Carta a un fantasma (Txalaparta, 1997),
Hace frío aquí en España (Hiru, 1998), Nadine (Txalaparta, 2000),
La barca de Amín (Txalaparta, 2002) eta El niño de Maguey
(Txalaparta, 2006).

C.P. La Moraleja
Ctra. Local P-120
34.210 Dueñas
Palencia

ATARAMIÑE DELA ETA

Afaldu ostean Ezekiel Petrikorena Cañón eta Jesús Ferrer Moralesek patioko giltzarien bulegora bertaratu eta kartazal itxi batean asteko eskutitzak jaso dituzte. Jantokiko mahai baten inguruko aulkietan eseri eta senideek eta lagunek duela hogeita bost egun bidalitako eskutitzak irakurtzeari ekin diote goxo goxo.

- Ezequiel Petrikorena: Ataramiñakoek eskutitz bat bidali didate.

- Jesús Ferrer: Baita niri ere.

- E.P: Eta zerbait bidaltzeko asmorik ba duzu?

- J.F: Ez dakit, eta zuk?

- E.P: Ez dakit… agian idatzita ditudan olerki batzuk bidaliko ditut. Ez dut gogo handirik ezer berririk idazteko.

- J.F: Nik ere bertso batzuk baditut paratuta era agian horiek bidaliko ditut.

- E.P: Ondo.

- J.F: Bai, ondo.

- E.P: Aizu, eta iaz zer bidali zenien?

- J.F: Bertso batzuk, eta zuk?

- E.P: Neskalagunari egin nizkion poema batzuk.

- J.F: Ondo, orduan.

- E.P: uhmmmm.

- J.F: Agian zerbait propio egingo dut aurtengo Ataramiñerako.

- E.P: Bai, eta zer?

- J.F: Ez dakit.

- E.P: uhmmmm.

- J.F: Hemen pairatu behar izaten ditugun bizi baldintzak kontatuz agian kontutxoren bat idatziko dut… zer deritzozu?

- E.P: De puta madre.

- J.F: Bai, de puta madre.

Arratsaldeko zazpiak dira. Afaltzeko ordua. Ezekielek eta Ferrerek norberaren poltsetan eskutitzak sartu dituzte eta afari erretiluak hartzera abiatu dira ttapa-ttapa.

Txabolo ate automatikoa itxi denean Ezekielek karpeta urdin batean gordetzen dituen poemak irakurri ditu eta baita bakar batzuk aukeratu ere.

Sentikorrenak.

Mahia gainean duen karpeta ori batetik kartazal bat atera du eta Ataramiñeren egoitzaren helbidea idatzi du bere kaligrafiarik hoberenarekin. Ondoren hogeita hamabi zentimozko zigilu bat jarri eta listo!

Ferreren txaboloko atea bi segundo beranduago ixten da (horregatik beti Ezekielen ate parean agurtzen dute elkar). Irratia piztu du. Albisteak betikoak : el consejero de interior del gobierno vasco ha informado en rueda de prensa que este verano se ha saldado con impunidad cero en

las calles y plazas del país vasco y por otra parte se ha descubierto un nuevo zulo al sur de las landas y el ministro de interior dice que la banda terrorista está más débil que nunca y el ibex 35 ha subido un punto y medio para situarse en los once mil trescientos puntos y el fuego arrasa grecia y se encuentra ya a veinte kilómetros de atenas y la atleta española descalificada de los mil quinientos metros saluda emocionada a sus abuelos y dedica el triunfo a su profesor de kárate y en próximos avances ampliaremos todas estas informaciones.

Ferrerek irratia itzali du. Dutxa bat hartu ondoren Ataramiñerako buruan duen kontutxoa arrapalada batean idatzi du.

Hurrengo goiza: Ezekiel kexu da gosaldu baino lehen. Goizero bezala.

- E.P: Kaguendios! Ez dut apenas lorik egin.

- J.F: Zergatik ez, ba?

- E.P: Betikoa, alboko txaboloan bizi denak gau osoan kolpeka jardun du.

- J.F: Ba…esan zerbait… bidali pikutara!

- E.P: Zertarako?

- J.F: Aizu, prestatu al dituzu Ataramiñerako poema horiek?

- E.P: Bai eta zuk?

- J.F: Nik ere bai!

- E.P: uhmmmm

- J.F: uhmmmm… zer?

- E.P: Ez dakit…

J.F: Ez dakizu, zer?

E.P: Ez dakit… Ataramiñe ateratzen dutenek izugarrizko lana egiten dute, urtero ahalegintzen dira eta…

J.F: Eta guk ez dugu kasik esfortzurik egiten…

E.P: Agian hurrengo urterako zerbait txukunagoa prestatuko dugu.

J.F: Bai, hurrengorako. Ze, gosalduko dugu?

E.P: Ekin ba, gose naiz eta.



Iurgi Garitagoitia Salegi
Bilbo

Aurten atxilotuta

BOIS D´Arcy - Maison d´arrêt des Yvelines
5 bis, Rue Alexandre Turpault
78.395 Bois d´Arcy

ILARGI BERRI BAT

Ilargi berri bat
ikusi dut gaur.
Keinu bat egin dit
eta berarekin
konspiratzen aritu naizela
iruditu zait.
Flexoa itzali
eta bere argi beroa
sartzen utzi dut.
Azkenean
bera ere gerturatu da.
Gauero etorriko dela
zin egin dit.
Ilargi berri bat
sentitu dut gaur.

ARIMAREN IHESALDIA

Garrasi batekin hustu nahi nuke gorputza
dena bota eta indar guztiak ahuldurik
lurrera erori.
Akaso horrela, ezin egon honek
ez dit barrua sutuko.
Akaso horrela, loak hartuko nau
goizeko zazpietan, arrotz batek
esnatu arte
eta ez dut argazki hori
gaurko madarikazioarekin begiratuko.

Guk neurtzen ez dugun
denborarekin bizi behar dugula
esan nahi digute egunero.
Maitasun laztanak ere
ez daude gure esku.

Korrika doa nire arima, basoetan zehar
loturengandik ihesi. Nik
hemen itxarongo dut. Badaki
soilik berak daukala
irten ahal izateko baimena.
Bihar kontatuko dizkit
azken bidaiaren bideak zeintzuk diren.

Baina ez omen du ahazten
egunen batean biok batera irtengo garela
eta hemengo madarikazioak
askatasun bideko basoan, pauso bakoitzarekin
zapalduko ditugula.

HORI ESAN DIDATE

Ez naiz idazteko gai izan
luma, tintarik gabe utzi didatenean.
Ez naiz sortzeko gai izan
ideiak lotu dizkidatenean
ametsak zalantzez bete dizkidatenean
eta zuhaitzetatik
hostoak erortzen direla erakutsi didatenean.
Aurrean gaude, bertan dauzkat
baina ezin ditut ikutu.
Ez didate
hostoak laztantzen uzten
eta ez omen didate utziko.
Nik, denak zuhaitzean mantenduko nituzke
denak edertzen dute eta
ederra izateko lanaren sendotasuna.
Pauso batzuk baino ez dira
baina horiek egiteko
debekua
ezarri omen didate.

Hala ere, tinta bukatzean
gehiago badagoela konturatzen hasi naiz.
Ideiak, ezin badira atzeman
lotu ezinak direla ulertuko dudala
esan didate. Beraien akelarrean
biltzen direla
eta eman dezaketen
askatasuna mugarik gabea dela.
Eta
birgogorarazi didate
zuhaitzetatik hostoak erortzea
derrigorrezko ziklo baten episodioa dela.
Baina ez direla
hiltzeko erortzen. Aurretik
zuhaitzaren edertasuna babestu badu
bere izaten jarraituko duela betiko.
Aurrerantzean
gai izango naizela.
Hori esan didate.

BETI LAZTANDUKO ZAITUT

Behin idatzi nuen :
"Hemen nago
irudimenarekin laztantzen zaitudan
egunak noiz bukatuko zain".
Begiak itxi
eta aurrean ikusten zintudan
barre eginez "eman muxu bat" esaten zenidala.
Horrela irauten nuen
zurekin
borrokan.
Agian arraroa irudituko zaizu
edo agian ez baina
zain egoten jarraitu nahiko nuke
denbora luzez.
Zu hor uztera behartu ninduten
eta orain
lotuta naukatela ikusiko zaitut
Zuk
"maite zaitut" esango didazu
eta nire irribarrearekin
askea izaten jarraitzen dudala
konturatuko zara
nahiz eta beraiek
gatibu harturiko txori bat
besterik ez ikusi.
Beti laztanduko zaitut.
ziega batetik
baina laztanduko zaitut.
Eta ez dute
nola egiten dugun ulertuko.
Askatasuna
zer den ez dakitelako.



Naiara Mallabia Sanchez
1982
Bilbo

2003ko udaberrian atxilotu zuten.

C. P. CURTIS (Teixeiro)
Carretera de Paradela s/n
(km. 540 A-6 Salida N-634 Santiago)
15.310 Curtis
ACoruña

Zein da minaren hizkuntza?
Zer esaten dute zauriek?
Zergatik mutua da beldurra?
Zergatik itsu nabil erantzunen bila?
Agian ez ikusteko haien pisu handia?
Baliteke nahi ez izatea egia?
Non hasten da amaiera?
Eta non bukatzen da hasiera?
Nola ez galdu betiko irria?
Nola askatu korapilo askaezina?
Bete behar al ditut zuen hutsune handiak?
Galduko ote dut naizenaren erdia?
Txiki sentitu behar dut mundu handian?
Non itzali zen maitatzearen argia?
Eta noiz alde egingo du maitatzearen minak?
Non jo ninduten egiteko hainbeste mina?
Hitz egidazu beldurra, ez geratu begira
Non ditut orbainik uzten ez duten zauriak?
Itzalean bizi den mina.

Honelako leku batean, bizirik dagoena,
bizirik mantentzen dugulako da.
Bestela leku honetan
dena akabatzeko egina dagoen leku honetan
dena hiltzen da.

Qué pasa con nosotr@s:
l@s que navegamos
sin seguir la razón de las estrellas,
l@s que navegamos
sin miedo a morir ahogad@s,
l@s que navegamos
con todo perdido en las manos.

Qué pasa con nosotr@s
l@s que navegamos sin viento,
l@s que quemamos por dentro,
cuando lo que sentimos
no encuentra puerto despierto.
El mar está oscuro
y nosotr@s,
ahogad@s,
navegamos sin miedo.

Tu cuerpo vive porque respira
Y todos los días eliges respirar
queriendo vivir.

Tu cuerpo muere por no respirar
y si decides no hacerlo,
dejar de respirar esta vida
en el derecho a la propiedad privada
de tu cuerpo, de vivir tu vida
o dejar de hacerlo
porque no puedes o no quieres
sostener la vida,
das un paso al frente,
hacia la muerte
con el valor de quien tiene claro
lo que quiere y lo que no.

Hay momentos en que necesitas
todo tu valor para vivir.
Pero quien decide
encaminarse a la muerte
no se arrodilla,
libra la batalla más difícil
y dura que pueda haber.
Es difícil vivir
más difícil todavía saber morir.

Cuando los demás
no estamos preparados
para vivir,
para vivir sin ti.

Beraientzat

Todo parece alto si lo miramos desde el suelo,
pero cuando nos acostamos en las nubes y
nos arropan las estrellas, todo se puede
acariciar con la punta de los dedos.
Sólo hay que saber hacerlo sin despertar la noche.



Oier Gonzalez Bilbatua
1979
Durango

2005. urtean preso hartu zuten.

VILLEFRANCE - SUR - SAÔNE - Maison d´arrêt
Rue Lavoisier
B.P. 482
69.665 Villefrance - Sur - Saône

“LA VIE UN VIDE IMMENSE A RECENSER”. RENE CHAR

Papier. Une plume qui crache de l'encre. Il est tard et la lampe est allumée. Étrange bruit de la plume qui danse sur le papier. Une pharse. L'année vient de commencer. Même sentiment que le début de l'an dernier et de celui d'avant. Une enveloppe, un timbre. Des nouvelles qui arrivent au compte-gouttes. L'ami fêtard vient d'être père, Ke cabcre de l'écike est devenu adjoint au maire. Une lettre, une photo. Une odeur que à voyagé dans le temps, le sourire que va avec. Une tendresse lointaine. À bientôt. À bientôt? La main qui s'agite, une larme. Noiz arte? Jusqu'à quand? La lune que croise le cadre de la fenêtre. Les mots inondente le papier, la nuit divisée en centaines de petits carreaux, una étoile, des mordeaux de mur, des barbelés. Le vent qui insuffle la vie aux sacs plastiques accrochés aux barbelés, des petits fantômes en mouvement au milieu de la nuit. Un lit. Moitié-vide ou moitié plein? Tu me manques. Des nuages aussi quadilés que les étoiles. Pleubra-t-il demain? L'encre ne me suffit pas. La chaleur d'eune caresse est irremplaçable. Le temps qui passe lentement., une heure a 60 minutes, mon coeur bat à 60 plsations par minute. La plume qui suit son chemin au travers du papier aussi quadrillé que les nuages, les étoiles la fenêtre. Et drrière la plume, moi en train de m'en alle à l'interieur de ce monde quadrillé. Une évasion.

LETTRE A A

Chère A:
Une fois encore je viens dẽutre transféré, en cette occasion depuis la M.A. Villenueuve lès Maguelone. C'est incroyable mais avec autant de changements je suis en train de découvrir « la France d'en dedans » (que c'est presque le triste synonyme de « la France d'en bas »).

Cette fois-ci j'ai croisé le territoire français de la main de l'agence de voyages Tourtures. Avec un service d'accompagnement idçeal nommé ERIS. A voir les mesures médicales (gants et cagoules) qu'ils prenaient, j'avais cru qu'on partait dans une jungle lointaine et plein de maladies. J'ai dû me mettre à poil devant les messieurs du service d'accompagnement, pendat qu'ils me filmaient avec una petite caméra. Je suppose qu'ils avaient besoin d'images de mon cul et couilles pour mieux me reconnaître en cas d'accident ou perte (j'ai une petite pensée pur l'ultra-traumatisé ancien directur du Libé, don't worry la nudité est belle!).

Done me voilà à Villefranche sur Saône. Ainsi ma famille est obligé de parcourir plus de 800 bornes pour una parloir d'une heure. On punis la famille pour mieux pourrir la vie des militant(e)s. Soit on perd nos liens affectifs, soit la famille est saignée économiquement (très pratique en temps de crise!), ou risquent leur propre vie en prenant la voiture pour venir nous voir et préserver nos liens.

Eh ouais ma chéré, c'est ça la nouvelle démocratie en France, Espagne, États Unis, Turquie... On offre des magnifiques voyages aux gens qui ne se rangent pas dans leur modèle de société.

Bon et sur ces quelque petites lignes, je te dits SALUT ET BON VENT... CRITIQUE.

MURAT

À BAS LES MURS.

Ziegako leihoan dagoen burni-saretik haratago ikusi ahal izateko bi sistema ditut. Aurpegia barrote eta burni-sarearen kontra pega-pega eginda jarri ezkero, burni-sarearen karratutxo bana nere begien parean, gainontzeko sarea ia desagertu egiten da. Burniaren hotza aurpegiko azalaren kontra. Bestela, mahaian jarrita kanpoalderuntz begiratu nahi badut, derrigor begi bat itxi beharra daukat. Karratutxoak txikiegiak dira eta barnean ez dira bi begi sartzen.

Otordu bakoitzaren ondoren, oso mugimendu handia suma dezaket Murat-en leihoan. Batimenduaren bestaldean dagoenez, leihoko karratuen artetik ikus liteke adiskide kurduaren leihoa. Bera da arratoi hegalarioi ogi papurrak ematen dizkien bakarrenetarikoa. "Secours catholique"-ak hilero ematen dion 20 €-ko diru-laguntza tabakoa erosteko behar du. Beraz aldez edo moldez, beti prekarioki, ingurukook pasatzen dizkiogun kontutxoekin eta espetxeak banatzen duen janari (kalitatez eta kantitatez) eskasarekin irautea beste aukerarik ez dauka.

Behin, GARA-n azaldu zen Newroz eguneko argazkia erakutsi eta ziegan itxatxiko zuela komentatu zidan pozik. Batek jakin noizko oroitzapenetan murgil eginda. Alemanian zenbait urtez lan egin ondoren, Frantziara igarotzea erabaki zuen. Zoritxarrez 2001-etik aurrera, Frantziar estatuak ez du kurduen errefuxiatu politiko statusa onartzen. Ordutik bere visatua berritzeko aukerarik izan ez duenez paperik gabe ibili da Murat. Paperik gabe baino, legezko paperik gabe ezen merkatu beltzean 3000 € ordainduta pasaporte bulgariar bat eskuratu zuen. Berak dioen bezala, lehen ordainketa honen ondoren pasaportea berriztatu behar izan ezkero, artisau berari 300 € ordainduta nahikoa luke (prix preferentiel).

Zoritxarrez pasaporte bulgariarrak ez dio espetxeari itzuri egiten lagundu. Denbora luzez eraikuntzak (ouvrier maçon) lanean aritu ondoren, bere patroi turkiarrak ez zion soldata ordaindu. Paperik gabe zegoenez, polizia etxean salaketa jartzea ezinezkoa zitzaion. Beste bi lankiderekin batean (hauek patroiak bezain turkiarrak, zapalkuntza dena/denok berdintzen gaitu), jostailu dendan errebolberrak erosi eta nagusiaren bulegoan sartu ziren. Agian errebolber erreal bat izan balitz, zorrak kitatzea lortuko lukete. Baina mehatxuek jostailuzko pistola bezain indargeak, ez zuten nagusia kikildu. Laster sei hilabete egingo ditu espetxean, bere familiari diru apur bat bidali ahal izateko Frantziara iritsi zen Muratek.

Bere begiei darien tristura erabatekoak "me plomb le caeur".

PATIOAN. BLOGAK & LETRAK, VILLEFRANCHETIK LARRABETZURA.

Patioan.

Patioan zirkuluan paseatzen gara, erlojuaren orratzen kontrako norabidean. Berez, giltzapean ihes egiten digun denboran atzerantz itzultzeko ahalegin desesperatua dela dirudi. Ezagutzeko aukera izan dudan espetxe guztietan norabide bertsuan dabil jendea, erlojuaren orratzen kontra etengabe. Fresnesen izan ezik, bertan aste parea igaro nituen eta patioak estuegiak dira zirkuluan ibili ahal izateko (Fresnesen ez dago denbora harrapatzeko ahalegin desesperatuentzat espaziorik).

Azken egunotan Petrurekin zirkulu andana marraztu ditut. Janzten dituen alkandora dotoreek ozta-ozta ezkutatzen dituzte, (nere ustean) are dotoreagoak diren tatuajeak. Dutxan ikusi ahal dudanez, 50 urteko errumaniarrak gorputz osoa tatuajez josia dauka. Besoak, izterrak, oinak, bular aldea eta bizkarra, amabirjina koloretsuz, sua darien deabruez eta tximeletez apainduak dauzka. Tatuaje koloretsuok, aspaldi espetxean egindako beste ilunago batzuk ezkutatzen dituztela komentatu zidan behin.

Gai honen bueltan, herenegun, dutxa hartzen ari ginela, (Villefranchen astearte, ostegun eta larunbatero, goizeko 7ak eta 8ak bitartean, 10 minutuko dutxa hartzeko eskubidea dugu. 10 minutu ni plus ni moins. Dutxara sartu orduko, matoiak 10 minutu irauten dituen uraren giltzari eragiten dio. Denbora hori igarota, automatikoki, urik gabe geratzen gara. Batzuetan, eskatuz gero edo tira-bira baten ondoren, matoiak giltzari bigarren buelta bat ematea gerta liteke. Baina goizeko 7etan, funtzionarioarekin istiluak izanez gero eguna hasteko gogoa ere izan beharra dago), Petruk izterrean duen amabirjina bat erakutsi eta "tatuaje honen azpian dagoen beste tatuajeagatik 5 urteko espetxe zigorra irentsi nuen Alemanian, bota zidan. Trenez, frantziar pasaporte faltsua patrikan, Bruselatik Berlinera zihoala, polizia alemaniar batekin eztabaidatxoa izan zuen. Bidaia txartelik gabe zegoenez berehala ordaindu beharreko

amenda jarri zioten. Baina P4etruk, markoak beharrean dolarrak zituen karteran. Treneko tabernan dirua aldatzen saiatu eta kale. Konpartimentu ezberdinetan atzera eta aurrera (txakurren begiradapean noski) ibili ondoren, ez zuen beharreko dirua lortzerik lortu. Hainbeste bueltarekin Petruren desmartxak poliziaren susmoak altxa zituen, beraz atxilo hartu eta komisariara eraman zuten.

Txakurtegian pasaportea berea ez zela esaka hasi omen zitzaizkion. Gainera, trenean atxilo hartu zuen txakurrak. Petruk alemanez hitz egitean ez zuela azentu frantsesa zioen. Kontua are gehiago okertu zen esku eta besoetako tatuaje "talegeroez" galdezka hasi zirenean. Arropak erantsi eta tatuaje guztiak erakutsarazi zizkioten. Hala, txakurrak orduan izterrean zuen tatuajea ikusi zuten. "Nola da posible, frantziar izanik, izterrean Football Club Bucarest-aren logoa tatuatua izatea?". Hitzok entzutearekin batera, bere libertatearenak egin zuela ohartu zen Petru. Bere hatz markak ordenagailuan sartu eta kreditu txartelen salerosketa ilegalagatik atxilotze agindua zuela ikusi zuen txakurradak. "Porca miseria!" bota dit, Italiatik estraditatu berri duten errumaniarrak.

ZIGOR TOVARITXA AGUR

Frantziako frontearen ipar-ekialdeko trintxeretatik idazten ari natzaizu. Asaltoari ekiteko ordu gutxi batzuk falta direlarik, txokolate eta tabakoaren trukean ezker eskuin aurkitu ditut, zuri gutuntxoa idazteko beharrezko diren trepetak (orriak: txokolate ontza bi; luma; tabako motxin bat; tinbredun gutun-azala: liatzeko papera eta tabako eskukada). Komunikatzeko modurik xumeenak ere modu aztoragarrian garestitu dira prajeotan. Baina nork jakin, burua trintxeretatik atera eta ondorengo segunduan, arnasa betirako moztuko didan berunak gorputza txikituko ote didan. Lumak luma izateari uzten dion tenorea duzu hau. Astiro doian denboraren (idi gorrien gurdi hori) zimurretan, norbere arrastoa zizelatzeko herrimina bihurtzen da. Besterik ez bada, gure existentzia efimeroaz haratago joango den zerbait sortzeak, ixtante batez hilezkor bihurtzen gaitu. Hilezkor, odol hustutako gorputzen erdian, paradoxikoa dirudien arren, hala senti daiteke bat lumari eragitean. Herenegun, kapitain tovaritxaren oihua entzun eta erasoaren lehen arnasaldian, berrehundik gora gorpu loratu ziren lokatzezko zelaian. Eta zergatik nago hemen, pareko zelaian ahoz gora erraiak bistan ditudala, gorpu egon beharrean?.

Parisko akuartelamenduan elkarrekin geundela, zuk esan zenidan iparekialdeko frontera destinatu nindutela. Gorputzeko hotza, arimaren hotz bihurtu zen lipar batez eta "dekretua" hitzak bihotz/gogoaren zoko guztiak bete zizkidan. Dibisioko beste tovaritxek, abattoirera bidean doan txahalari begiratzen zaion erruki bertxuaz agurtu ninduten. Hau bai patu ziztrina Zigor tovaritxa!

Frontearen alde hontan, gorputza eta arima dira, biak batera izoztu direnak. Dena da hotza hemen, elur zikinez altxatutako panpina konpainia osatzen dugu. Lerrook idazteko ere zailtasunak ditut. More kolorez aspaldi tindatu ziren hatz puntta izoztuek min ematen didate. Egia esan, gorputz osoa ubelduraz betea daukat edo gorputza bera da ubeldura erraldoia bihurtu dena. Parisetik ekarri nituen gutiziak agortzen hasi dira eta

hemen trukatzeko zerbait izan ezean, bi egunean behin banatzen dute arrantxoa. Etxeko zerrien askan jateko hobea aurki liteke eta hala ere antsietate izugarriz irensten dut hemen banatzen diguten masa koipetsua. Zerbait izanen du zera hotz honek, ezen trintxeraren zulo ezberdinetatik arratoien begi gorriak nabari ditzaket, atezuan latorrizko ontzietan geratzen diren apurrei ekiteko prest. Hala ere piztiontzako benetako festa trintxeraren bestaldean dago, metrallak zatitutako gorpuen artean. Iñigo tovaritxak nere etorreraren berri ikasi orduko, zituen azken tabako apurrak, neri oparitzeko komuneko paper erroilo baten truke xahutu ditu. Parajeotan komuneko papera suposatzen duen lujoa deskribatzea zaila da. Gorputzeko gainontzeko atalak kaka eginda ditugula, uzkia tertziopelo xamurrez garbitzearen lujoa. Tuberkulosiak jota aurkitu dut Iñigo tovaritxa. Begirada burua bezain galduta, uniformearen atzeko hezur multoaren azpian, gaztetxoak gineneko lagun mina ezagutzeko zailtasunak izan ditut. Ezpain ajatuak dardara geldiezin batean murgilduta, hitztotelka munduaren akabera, apokalipsiaren zaldun eta infernua danteskoak darabiltza ahoan gaixoak.

Zigor tovaritxa, fronte guztiak gogorrak dira, baina ipar-ekialdeko hontan, miseria gorria azalera itxatxi zaigu. Laister kapitain tovaritxak asaltorako deia joko du. Eta guk asaltoari ekingo diogu, itxatxita daramagun miseria honen kontra, lurrera botatzen gaituen lokatz piloaren kontra, zuzen nondik datorren ez dakigun metrallaren kontra... Hatzak izozten hasi zaizkit, ez dakit nire izkiluaren gatiluari eragiteko gai izango ote naizen. Ez dakit noizbait berriz elkar ikusten aukera izango dugun. Itxaropenez bentetako biharamunak este batzuentzat utzita.

AGUR ETA OHORE ZIGOR TOVARITXA.



Aitor Artetxe Rodriguez
1975
Algorta

2008. urtean atxilotuta

ILLEPINTE - Maison d´arrêt de Seine Sain-Denis
Avenue Vauban
93.422 Villepinte Cédex

MAITASUNA TA ASKATASUNA

Nork bideratzen du gure patua? Nork eramaten gaitu goazen lekura? Nik zurekin egon nahi dut, zu zarelako nire patua, nire bidea, nire lekua… Ni zu naiz, ez beste inor, eta zu gu gara, behin horrela erabaki genuelako. Zugatik hartzen dut arnasa, zugatik egiten dut negar, zugatik irribarreak, oihuak… dena zugatik egiten dut.

Zugatik naiz, zu naizelako. Zurekin egon nahi dut, beti, zure ondoan ez nagoenean ere. Zure muxuak, besarkadak, hitzak, goxoak zein ez hain goxoak… Gau zaratatsuak, bazkariak, ordu txikitako kolakauak, makarroiak, ipuinak, istorioak, historia, iragana, oraina, Etorkizuna, argazkiak, eskutitzak, kontzertuak, musika, bidaiak, sexua, egongelako mahaia, ilargia, maitasuna, maitaleak, mina, amorrua, borroka, nazka, esaten ez diren hitzak; maitasuna…

Maitasuna naiz, maitasun bilakatu nauzu. Maitasuna zara. Ni zara, ni izan zara eta beti izango zara ni. Zu ta ni, gu, denok, bizitza.

Maite zaitut zuk maite nauzun bezala, sentitu zintudan lehenengo unetik, zure barnean sentitu ninduzun lehenengo unetik. Behar zaitut potxola, ez nazazu utzi, nik ez zaitut inoiz utziko.



Alfontso Etxegarai Atxirika
1958
Plentzia

1985ean Quiton, Ekuadorren, deportatua.
1986an São Tomé-n deportatua.

CX. postal 328
São Tomé
R.D.S.T.P.
AFRICA
etxe@cstome.net

HORDAGO AL JUEGO

Vivía tratando de no dejar caer sus recuerdos… Toda la vida anterior al destierro. Ya viejo, tenía grandes huecos en su memoria; "agujeros negros", decía, donde a veces indagaba como si de un laberinto se tratase. En la claridad de los sueños volvía a la tierra de destierro, náufrago, solo, "robinsoniano y sin los Viernes de Defoe" que le comentaba el camarada Odriozola en mensajes cada vez más distantes. Su compañera decía de él que se había vuelto un cascarrabias. Un cascarrabias que perdía las llaves, la vista, la memoria… y que se mantenía firme en un principio: "Yo sólo volveré cuando el mundo cambie". Nadie sabía lo que para él era "el mundo",

Mikel distribuyó las cartas. A su izquierda estaba el viejo, a su derecha Txema, en frente su compañero de juego, Iban...

Los tres jóvenes se habían desplazado hasta la isla de confinamiento del viejo para interesarse por su vida, en la alegalidad desde los veinte años, para interesarse por su vida y volver con sus recuerdos. Como preámbulo, el viejo había propuesto una partida de mus: "Buena manera de conocerse", les dijo.

– El viejo: Una vez aparecieron por aquí unos españoles queriendo jugar al mus conmigo, joé, e insistieron como si hubieran venido a la isla únicamente para eso. En aquella época tenían manía de venir a verme españoles, algunos con proyectos para inventar angulas y exportarlas, otros para montar bares…Siempre querían meterme en sus negocios, como si yo estuviera en la isla como empresario. ¡Hasta el hijo del Comandante de la Brumete apareció!

– Txema: ¿Qué raro, no?

– Mikel: Les ganarías, claro.

– El viejo: Sí, bastante raros los tipos. Lo que les interesaba, además de ganar al mus a un vasco, gran cosa para un español, era que les hablase del mundo. Al mus no me ganaron, Mikel, ni pensar. En aquella época estaba aquí un "hondarrabitar" de la leche, Jon, que hizo pareja conmigo, y él era un osado de los que mentía con arte cuando no tenía cartas, con arte y humor, como buen marino, y sorprendía al adversario cuando las tenía.

– Mikel: ¿Pero qué querían saber… del mundo?

– El viejo: Que podían querer saber de un viejo como yo… Acaso si estaba arruinado, perdido, derrotado, no sé. Os lo podéis imaginar. Pero del mundo ya les hablé, ya, y del Athletic que para mi es medio mundo. Los vizcaínos vemos el mundo desde el "botxo". El caso es que ellos tuvieron que hablarme del Numancia, que por aquella época estaba lleno de jugadores emigrantes vascos. Cualquier cosa para dejarme caer que los vascos son españoles ¡Qué manía la suya!

– Iban: ¿Puedo hacerle una foto al cuadro?

La sala estaba llena de libros, postales, fotografías, todo cubierto por el polvo de 24 años de destierro. El cuadro del Che, que el viejo había robado de la Embajada cubana cuando cerró, llamaba la atención en medio de aquel puzzle de objetos entrañables de la tierra natal.

– El viejo: Claro que puedes, claro, también para el recuerdo, me imagino. Y vosotros, con barba de chavales, ¿qué pensáis del mundo?

– Txema (un poco picado y pasándose la mano por la cara): La mía está espesa, ¿no ves o qué…?

El joven descendía de emigrantes españoles. Sus padres aprendieron la lengua de la tierra y escolarizaron a su hijo en la misma. Txema se había convertido en un "bertsolari" de renombre; trabajaba como periodista y todavía encontraba tiempo para viajar con su acordeón, llevando su ser vasco desde Altxuruku hasta Plentzia.

– El viejo (cortándole): No, no era eso. Quería decir que yo crecí en el ambiente de los "Kantaldi", de las grandes movilizaciones contra Lemoiz. En los ambientes de las fiestas de pueblo donde aparecían los "Guerrilleros de Cristo Rey" para jodernos la manta, los que por la noche metían bombas en los bares de "abertzales". Allí los que aguaban la fiesta eran ellos, los fascistas. Nosotros apenas hacíamos pintadas en las paredes. Eso sí, cuando aparecían por alguna calle, la fiesta medio paraba y la gente se organizaba para protegerse y correrles. Claro que nosotros también armábamos jaleo en las calles, pero cuando había huelgas generales y los grises aparecían con sus matracas asaltando bares y dando de hostias a la gente. Una vez nos quedamos cuatro o cinco lanzándoles piedras, allí, en la estación de Algorta, les mantuvimos un buen rato a raya a los cabrones…

– Mikel: Bueno, bueno, viejo, ¿jugamos o qué? Yo mus…

El viejo se quedó pensativo un rato, como si estuviera fuera del juego. En realidad se interesaba más por el temperamento de aquellos tres visitantes y quería ver su manera de jugar al mus, juego en el que hay que saber dominar las emociones, sintonizar bien con el compañero y no dejarse llevar por la desesperanza de no ver cartas. Eran bastante diferentes a él cuando tenía su edad. Eran vascos y no tenían necesidad de decirlo: su lengua natural era "euskera", a pesar de haber crecido en barrios "erdaldunes". Él había crecido en un pueblo donde se creían más vascos que la leche hablando castellano. Eso le emocionaba mucho. Los tiempos por lo menos habían cambiado.

– El viejo: Pues mus… si lo dice mi compañero, que es mano. ¿En qué año habéis nacido?

Mikel volvió a distribuir cartas, dos para Txema, tres para Iban, cuatro para el viejo y dos para él… A nadie le había entrado nada.

– Txema: Haciendo cuentas, hemos nacido después de tú estar deportado. En realidad no sabemos mucho de tu época. Por eso queremos que nos cuentes.

– Mikel: Pues ahora están como en el franquismo, reprimiendo todo y hasta haciendo pucherazos en las votaciones…

– Txema: Déjales así, sin disfraces. Lo suyo no son más que hazañas de conquistador. Están reconquistando las calles, los medios de comunicación, las fiestas, las instituciones… Como buenos ocupantes.

– El viejo: Vosotros no habéis vivido la época en que el mapa del mundo se iba colorando de rojo con los pueblos que se liberaban de la ocupación extranjera. Seguro que ni habéis visto *Ocho hombres al amanecer*. Sois de la época de la bombas kamikazes. Ahora os inundan con las guerras globalizadoras de los americanos y el terrorismo.

– Iban: Pero hemos estado en Palestina, en Kurdistán, en Chiapas, en el Sáhara… Y hemos visto sus luchas, sus movidas y la dura represión en que viven.

– El viejo: Ya, ya, es verdad, son situaciones desesperadas, mucho más que la nuestra. Y tenéis mucho valor yendo allí, cuando además hacéis trabajos de solidaridad.

– Mikel: ¿Por qué situaciones desesperadas?

– Txema: Es que se dan hostias entre ellos. Están muy divididos.

– El viejo: Eso, eso quería decir. A mí me anima conoceros y saber que trabajáis mucho en nuestra tierra, que habéis crecido todos en "ikastolas" y vivís en "euskera". Yo no tuve nada de eso, claro, nosotros no teníamos nada de eso en aquella época. Además teníamos muy fresca la derrota militar que nos infringió el fascismo español. Por eso creo que nuestra situación ha evolucionado con las semillas de otros tiempos.

Ahora se puede construir, la prueba sois vosotros. El riesgo, cuando la lucha es larga y el mundo no cambia, es que podemos hasta confundir los medios con los fines y no ver esa evolución de los tiempos. El sacrificio que se paga es muy alto. No hay peor cosa que no saber aprovechar los éxitos y las buenas cartas, en el mus es igual. Cuando el enemigo es muy superior le gusta dar "hordagos", pero no tenemos que entrarle si sabemos que lo nuestro es jugar a los "tantos".

Recordó que él había crecido en medio del mito de una lucha con militantes que pocas veces caían, de estructuras que se mantenían en pie años y años. De "gudaris" que cuidaban mucho del amor en la lucha, de separar los enemigos de los adversarios, de distinguir entre los armados y los desarmados

– Txema (después de mirar mucho sus cartas): Musss… pues.

– Mikel: Es verdad lo del sacrificio. En mi pueblo no hay semana que no se vayan amigos. Ya no sé cuántos se han ido en unos meses, y luego te enteras porque les detienen. Es un esquema que no vale. Es su esquema, el de los enemigos y su guerra. Estamos luchando bajo el dominio de su guerra.

– Txema: Yo también creo que el esquema actual no nos vale. Un ciclo de militancia muy corta. Lo peor es que estamos siempre discutiendo sobre los medios de lucha, demasiado tiempo, como si el problema fuera ése.

Mikel sirvió nuevamente cartas, una para Txema, tres para Iban, tres para el viejo, una para sí.

Txema parecía ir a por juego: treinta y una, los otros seguían esperando la suerte. También en la lucha hay momentos que se espera que algo cambie, la suerte acaso, pero no se puede esperar mucho. Sobre todo no se puede esperar a la buena voluntad del enemigo para que algo cambie.

2007an atxilotuta.
Aurten askatu dute.


TIRAS PARA DOBLAR DE UN FIES 3
ALGO NUEVO PASA CUANDO...
TE ARREBATAN ALGO ANTIGUO.
AISLAMIENTO
ANTES PODÍA SENTIR UNA BRISA ANTES DE MORIR...
ESTA CASA BRILLABA, SABÍA DE VERDE, MI HABILITADO EN SUS ÚLTIMAS COLECTAS DE VIDA, NO PARA DE DAR VUELTAS EN EL SUELO PERO DE UNA PUERTA HACIA EL MUNDO DE AFUERA.
FILA NO ES CONSCIENTE DE VE FUE MUCHO PELO INTENTE, YA NO PODRÁ ESCAPAR. DUDAR NUNCA MÁS
PERO AÚN ASÍ, CONSIGUE INTENTARLO UNA VEZ MÁS
...YES VE LE TOMA DE LA PARTE MÁS DÉBIL MIENTRAS MUERE DE UNA DE SUS VALIOSAS ARMAS DE SUPERVIVENCIA
EN EL CENTRO DE MADRID Y AHORA SE LA HAN ROBADO. LO SIENTO TUYA MUJER, YA NO LO TIENE, PERO BUENO YES VE TENDRÁ LA VUELTA A TENER.
SOLO YES VE PUEDE UNPACKED Y SIN SABER ISPY, YA NO PUEDE VOLAR. PERO, LO INTENTA UNA Y OTRA VEZ, LO INTENTA SIN ESPERAR A LA MUERTE.
DANIT ESKETCH, GANZA TXIKIETAN.


YO NO PUEDO HACER NADA, NO SOLO POR NO PODER SACAR DE ESTA CELDA DONDE ME TIENEN, SI NO, POR QUE, LO QUE EL TIEMPO REPRESENTA NADA NI NADIE LO PUEDE DEVOLVER.
PERO HAY UNA GRAN DIFERENCIA ENTRE LO QUE DEFINITIVAMENTE HA PASADO EL TIEMPO Y SOLO QUEDA UNA DISTANCIA Y EL SIGUIENTE MIRAR DE UNA CHICA PARA NO CORRER EL PELIGRO DE TIRAR HACIA LA VENTANA, ANTES DE LA VISITA, LOS AL TIEMPO AUN NO LE PERTENECEN.
HOY, DE IGUAL QUE LA ABEJA, NO DEJARÉ DE VOLAR POR VOLVER A DESPEGAR, SIN ESPERAR A LA MUERTE, LA INGENUA ESPERANZA, MANCHA DEJADA DE USANDO HACIA LA LIBERTAD.
DIRIZARGU AUZI HANDIKAPATUAK SORTITZEN.
BORTXA.


2:41 AM
FART


PLAS
PLAS
PLAS
PLAS
PLAS


NUEVO PLAN DEL GOBIERNO CONTRA LA CRISIS:
FOMENTAMOS EL TRABAJO DESDE NUESTRAS INSTITUCIONES
CREAR MILES DE PLAZAS INUTILES PARA FUNCIONARIOS CORRUPTOS
REQUISITOS
INDISPENSABLE TENER AMIGOS O FAMILIARES EN EL PARTIDO PARA PODER OPTAR A ESTE TRABAJO
SE VACUNARÁ A TODOS NIÑOS MENORES DE CINCO AÑOS CONTRA LA PSICOLOGÍA INFANTIL
MARCAR



Oier Andueza Antxia
1975
Durango

2001. urtetik preso dago.

C. P. de Cáceres
Ctra. De Trijullo, s/n
Apdo. 480
10.004 Cáceres










Nanterreko Euskal Preso Politikoak

Nanterre - Maison d´arrêt des Hauts de Seine
133, Av. De la Commune de Pariz
B.P. 1.414
92.014 Nanterre Cédex


















Jokin Urain Larrañaga
1959
Mendaro

1986. urtean atxilotu zuten.
Hainbat liburu argitaratu ditu: Izaina (AAB,1990), Adlotse(Txalaparta,1992), Gatibu jaio nintzen (Susa, 2000) eta Errotaria (Susa, 2006).

C. P. La Moraleja
Ctra. P-120
34.210 Dueñas
Palencia

GALDUEN OSTATUKOAK
-Raimundorenak-

Raimundo zuen izena, baina Mundo esaten zioten. Mundua bezain handia irizten ziotelako edo mundu osoan ibilia zelako, baina Mundo.

Galduen ostatura sarrera, atea bete-bete egin zuen, ordu hartan barruratzen zen argitasunari errezela ipiniz atalasean eta bere keriza handia mahaietaraino luzatuz. Txaraberen belea bera, une hartan atrilean zerbait errezitatzen ari zena, mututu egin zen etari begira.

Hirurogei bat urteko gizonluze zabala agertu zen atalasetik aurrera, tximak ia sorbaldaraino eta bibote zuri handia. Mostradorera joanda, hamaiketakoa eskatu zion ugazabandreari.

– Txuleta bat; handi-handia ez bada, bi. Patata prejituekin baina besarrik gabe –zehaztu zion. Bazekien zertan zebilen.

– Eta edateko? –galdegin zion Maitek sukaldera baino lehen.

– Ardoa; beltza –eskatu zuen zahagia nahi lukeenak legues, eta eserleku bila begiratu zuen ingurura.

Ostatuko horman eskegita zegoen basurde buruari aurrena, haren aldamenean atrilean tente zegoen beleari urrena begiratu zien Mundok; mahai baten puntan leku librea ikusi zuen azkenean.

Beste bi mahai tan eserita hamaiketakoarekin ari ziren Galduen Ostatuko ohiko bezereoak: Artubi eta Balu hertz batean, hortzordeen kaxa aloban hartuta, eta Asmodeo, Sebero, Lukario, Txarabe …

Atalasean azaldu zenetik begira jarriak zitzaizkion becerro guztiak Mundori. Hurbilago eta harrigarriago iruditu behar zitzaien gizona, hain handia luzean nahiz zabalean.

Etxekoek ohi duten patxada erosoan eserita zeuden bezeroei erreparatu zien mostradoretik mahaira bidea. Haien begiradak beregan iltzatuta somatu zituen Mundok, itaunka agian: "zer demontretara hator hona", "nor haiz. hi piura horrekin?" sukalderaino sartu zaigun arrotzari ohi zaion legez.

Kokildu ordez, edonori atzera eragiteko bekera hobearekin erantzun zien Mundok banan banan Xeberori, Txaraberi, basurde buru disekatuari bel eari… Asmodeoren betartearekin topatu zen arte.

Betarte hura, aurpegi hura… Beste nonbaiten ikusia ote zuen begitandu zitzaion; itsasoren batean agian, kaiaren baten beharbada,noizbaiten gizon harekin gurutzatua zela egin zuen bere artean. Zirkinen bat igarri uste izan zuen, gainera, Asmodeoren bekainetan.

Ezustearen keinua seguru asko.

Mundok ez zion, hala ere, ezer berezirik eman aditzera; ez zion diosalik egin. Ezer ez. Asmodeoren aurpegiarekiko akordua, ezeren funtsik bazuen behintzat, argiago etorriko zitzaion hamaiketakoa egin ondoren. Baraua tristea da, eta ezin ona izan memoriarentzat ere; sabel asearen ordainetan, esker onekoak dira espirituaren iratxoak, uste ilustratu guztien aitze.

Silari heldu eta, geldian geldi,zalapartarik gabe eseri zen Mundo, ingurukoez gehiago arduratu gabe. Ugazabandrean aurrera ekarri zizkion botila ardoari eta ogiari ekin zien.

Atetik mostradorera eta handik mahaira, Mundoren pausokera eta mugimendu bakoitzariadi, haren izari handiari erreparoan egonak ziren bezeroak, eta kalkuluak egiten arituak ere bai batzuk.

– Hamar arroa bai –esan zion Lukariok Luxori.

Mundori begira egon zen Luxio beste apur batean, Lukarioren kalkulua neurtzen bezela.

– Hamabi baietz egingo nuke… –erantzun zion behingoan, Mundori begirik kendu gabe.

– Sobran dauzkanik ez du uste hala ere, itxura denez –jarraitu zuen Lukariok, ugazabandreak aurrean ipini zion txuletari zelako afanean ekin zion ikusita.

Okel ari hagina eman zionetik desagertu egin zitzaizkion Mundori inguru-koak; atrilean zegoen belea, basurde buru disekatua… alboko mahai-etan eserita zeuden bezeroei ere ez zien kasu egiten orain keari baino kasu gehiago. Gorputzaren gobernuak baizik ez zuela arduratzen ema-ten zuen, eta bidenabarrean isiotu zekizkiokeen burutazioei ere ez ziela jaramonik egin nahi platera garbitu arte. "Espirituak itxaron dezala hara-giaren premiak ase artean" izan zitekeen bere lema. Isiltasun hartan, Mundok okelari -lantzean behin hezurrari ere bai- egiten zizkion ma-rruskada gozatsuak entzuten ziren. Besterik ez.

Gau tximeleta bat, senaren gomutatik galdutako bideren baten bila zebilena seguru asko, ikusi zuten bezeroek atetik sartzen.

– Kroak! –egin zuen beleak atrilean, Galduen ostatu-tenpluko haizea arrotzera ausartu ziren tximeleta urdin guztien zelatari.

– Kroak! –egin zuen bigarrenez errieta airean, eta atril aldera begiratu zuten guztiek, baita Mundok ere oraingoan, tximeleta ahaztuta-. "azken-batean espirituaren plazerra da plazer oro; hantze datza iturri agortezin hori, azein betekada aseko ez lukeen gurari moduan isuriz". Kroak!

"Alua!" egin zuen Mundok berekiko, ustekabean arrapatuta. "Espiritua? Espiritua ase beharrez jatell ote diat ba!"

Mahai ertzarekin bat egiten zion urdail-zahagiari esku biekin heldu, altxor ederrari legez begiratu, eta igurtzi leunak egin zizkion zilbor aldeari. "Hemen ote zegok, ba, espiritua?" galdegin zuen bere artean.

Belea isildua zen atril gainean, lurnak harrotu eta hiru-lau jauzitxo egin ondoren burua hegalpean sartuta.

Euren arteko berriketara itzuli ziren bezeroak, baina ez Mundo.

Belea atril gainean hizlari ikusteak ez zuen, berez, hainbeste harritu; gauza bitxiak ikusia zen mundu zabaleko bideetan, ikasita zegoen zernahirekin ez harritzen… Baina hegazti beltzak esan zituenak,"espirituaren plazera, gurari asezina" eta hantzeko kontu haiek, bereziki berari zuzenduak ote zeuden begitandu zitzaion.

"Baina –pentsatu zuen Mundok– bel e beltz horrek berorrek ez ote dik plazer gozoren bat sentitzen atril gainean hegoak astindu eta lumak harrotuz, pulpitu horren puntan jauzitxoak eginez eta bezeroen artean batari eta besteari begiratuz? Berbalapiko lumabeltz horrek ez ote dik espirituaren gozamenen bat, lumak baino espiritu zinez beltzagoaren gozamen asezina agian, elikatzen?"

Ez zen, noski, dohanekoa belearen jarduna; ez zen ari entzuleei atsegin ematearren, ez haien onagatik soilik, ezta haien denbora arintzearren ere. Plazer propioren bati edaten ematen zion, gozamen zehazte zinen bat gizenduz, jardun modu hartan jardunez.

– Plazeraren bila garamatzan gurari asezinaren jostailu eta tresna gara, beraz aken batean –etsi zuen Mundok bere baitan, plateran geratu zitzaizkion hezur soilduei begira–. Txahalen baten hezurrak –jarraitu zuen barne armonian–; hezurrak lagatzen ditugu bidean, gabiltzan edozein lekutan,geu bihurtu arte hezur huts.

Ostatuko ugazabandre Maitek platerak eta hezurrak eraman eta kafeak ekarri zizkien bezeroei, eta Mundori ere bai. Azukrea nahasten asko jar-

dun gabe zurrut egi on kafeari. Bibote handia isipuaren pare geratu zitzaion kafegainez eta gozo iritziz pasatu zuen mihia. Begiak mahaira jaitsita geratu zen gero, pentsamenduei begira.

Mundok izpazter urrutietan, hondartza harritsueta inoiz ikusitako balea hezur soilduak zituen agian gogoan, edo norbaiten etxe eder izandako en horma arrailduak, teilatu jausiak… sasoi joanen urruntze oro ezinaren zantzuak guztiak!

Alkandorapean paparretik zintzilik zeraman anbar puska haztatu zuen. Izen jakinik gabeko itsasertz batean aurkitu zuen antzar arraultzaren eiteko anbar koskorra. Sugandila -musker kumea zen agian- zegoen anbarrean atzitua, apur bat kiribilduta, geldirik baina andeakaitz, begiak erne, bizi-bizirik itxura batera.

Kikaran zerbaiten zain zeukan kafeari urrup egin eta kondar apurrei begiratu zien ostera mahaian laga aurretik. "Denborak erauzi duenaren hondakin gara" errematatu zuen Mundok beretzat.

Atrilean, hegoak astinduz eta jauziak eginez, karranka erlatsekin entzuleen arreta bereganatu nahaian zebilen belea berriz ere. Baina burutazio genialen haria etena izan behar zitzaion, edo inspirazioa agortua… burua hegalpean sartu zuen atzera, aukeran onena mututasunari iritzita.

– Itsastarra zaitugu inola ere, inor itsastarrik izatekotan -ekin zion Asmodeoak aldameneko mahaitik.

Burua jiratu zuen Mundok eta Asmodeoren betartearekin topo egin zuen. Txoker isiotu berriari takada bat eman eta ke handia bota zuen, aurpegia linotan ezkutatuz. -Neu ere sasoi batean itsastarragoa nintzen lurtar baino -jarraitu zuen Asmodeok-, zaputz batek ilaurtu ninduen arte. Zori hobea izan duzu beharbada…

– Zoriak, onak eta txarrak, haizeak eframan eta ekartzen ditu, baina ez denbora.

Denbora eraman .egiten du bakarrik, eta denbora joana ez da gehiago itzultzen gure bidera. Zertarako balio du izan garenak, lurtar nahiz itsastar? Inoiz izan ez dena bezain balizkoa ez al da iraganean geratu dena? Zinez uste zuenaren aitzi erantzun zion Mundok seguru asko.

Bestela ez ziokeen zion moduko atxikimendurik izan behar paparrean zeraman anbar koskorrari. Isilik geratu zen, dena dela, erantzunean nahikoa luzatu zela iritzita agian, eta beste takada bat eman zion txokarrari. Bibote horituari putz eginez bota zuen ke laino handia, irudi zehazkabeak moldatuz.

Keak airean egin zituen irudi haiek bezain iragankorrak bai gizakiok eta bai gizakion historiak, pentsatu izan zuen Mundok behin baino gehiagotan. "Baina iragankortasunak ez dio ezer kentzen zinezkotasunari -pentsatu zuen orain, sarritan legez nahasian eta kontraesanean zebilzkion burutazio haien hariletik jaregin ezinik; pentsamen soil eta irudimenezko munduak ere geureak direnez eta sentipenean bizi ditugunez…".

Beste takada bat jo zion puru ari eta kea ahalik mantsoen jaurti zuen bibote bizarren artetik.

Zeharka eta iraizean erantzun zion Asmodeori, bere izanaren literaltasunera hurbildu gabe. Baina kontalari honek ezagutzen du -nola ez du ezagutuko!Mundoren historia; bere haurtzaro txikienetik hasita ezagutu ere.

Kontua da Urbietakoa zela Mundo, eta Urbieta itsasertzeko herri txiki bat zen: kaia, itsasontziak lerroz-lerro … Arrantzale herria, munduan izatekotan arrantzale herririk. Urbietarra esatea, arrantzale esatea zen; arrantzale odolekoa, berezkoa, kito. Ez zieten alferrik egiten igeri froga jaioberri guztiei!

Bazen Urbietako kaian txoko bat, mendi-oinaren labar okerrak alde batetik eta moilaren uztai eiteak bestetik inguratuta zeukaten urgune bare samar bat, Odol-ura dei ziezaiokeena izen propioa ematekotan, edo Frogatokia, nahiago bada, baina izen berezirik ezagutzen ez zitzaiona berez, Kaiako Putzua izan ezik. Ba hantxe, kaiako putzuan alegia, egiten zieten froga urbietar jaioberri guztiei.

Hankagorria hartu mantarretan bilduta eta kaiara joaten ziren urbietarrak.

Segizioan iritsi ahala, labar kosketa batzuk, moilan besteak, putzua inguratuz jartzen ziren herritarrak ikusle. Eta orduan, ospakizunerako denak isilik eta zain zeudela iriztean, mantar eta zapien artetik atera eta besoetan jasoz erakusten zuen aita besoetakoak haur biluzia. Jarraian putzura, uretara, botatzen zuen.

Lehen momentuetan hondo ra joaten ohi ziren haur guztiak, harri koskorra bezain astun, sena primarioren batek tira eginda agian. Putzuaren inguruan aurrerantz makurtzen ziren herritarrak, ur ilun haietan zer ikusiko, hankagorria urgainera noiz azalduko.

Arrantzaleak izatea zen urbietarren ohore gorena, ezaugarri nabarmenena.

Jaiotzatik zetorkien. Berezkoa zuten. Arrantzale ez zena, ez zen urbietar duina, ez zen bere izenaren jabe.

Putzuaren alboetan elkartuta uretara begira zeudenek haur hondoratua atzera urgaineratuta plisti-plastaka ikusten zutenean, aupaka eta goraka lehertzen zen kaia; oihu eta irrintzi ospatzen zuten urbietar berriaren jaiotza. Orduan ematen zioten izena umeari, urgainera azaltzen zenean alegia, baina ez lehenago.

Eta bestela, uretara jaurtikita hondoan geratzen bazen haurra, ez baldin bazen plisti-plastaka azaltzen… jaio zenik ere ez.

Mundo ere kaiara eraman zuten mantarretan batuta, eta uretara jaurtiki zuten, moi lan eta labarretan, putzuaren inguruan korroa eginez jaiotza berria ospatzeko gertu zegoen jendearen aurrean.

Aita besoe.takoak zapien artetik atera eta denei erakusteko jaso zuenean, negar marraka ekin zion Raimundo txikiak. Aurpegia zimurtuz, orroa urragarriak egin zituen. Airean igarri ote zuen zerbait? Ez dakigu. Zaila da jakitea.

– Birika onak dakartza behintzat- pentsatu zuten seguru asko begira zeudenek, auspoa behar baitzen halako negarra jotzeko.

Plaust! Jaurti zuen uretara aita besoetakoak, eta uretan sartzearekin batera eten zitzaion negarra. Bapatean mututu zen, eta mutu geratu ziren urbietarrak inguruan, aurrera makurtuta uretara begira.

Hondora joan zen Raimundo hankagorria, olagarro ezkuturen batekurpe ilunetik tira egin izan balio bezala, mundu barrabasetik ihesi, ostera umetokiaren bila agian, bere aurretik jaurti zituzten haur guztiak baino beherago inola ere. Horregatik iruditu zitzaien itxaronaldia hain luzea atzera urazalera noiz agertuko zain zeuzkan urbietarrei.

Halako batean, herritarrak etsitzeko puntuan zeudenean, ordura arte beste haurrik ez bezala atera zen Raimundo urgainera, izurdekumea lotsagarri uzteko moduko indarrean.

Miretsita begiratu zioten moilan eta labarretan zeuden herritarrek. Ez zuten halakorik egundo ikusi, zaharrenek ere. Aparta, ez ohikoa izan zen.

– Hau bai arrantzalea!- zioten batzuek aupaka eta irrintzika.

– Hau bai urbietarra, arrantzale petoa!- besteek goraka.

– Arrantzaleetan arrantzalea!

– Itsastar petoa!

– Gora!!

Txapelak eta txanoakjaurti zituzten aidera.

Gizaldian bat jaiotzen zen, onenera ere, halako herritarrik, uretara bota eta argitasunik gabeko hondo ilunera joan ostean hain bizi, hain indartsu, urgainera igotzen zenik atzera. Eta nolako besakadak urgainean, nolako bizitasuna!

Baina Raimundok, hain txiki eta ezgauza, hizketan eta ttipi-ttapaka hastetik eta gauzak esaten hasteko gaitasunetik artean hain urruti, oso iritzi ezberdina zuen bai bere negarrean bai bere mututasunean.

Arrantzale eta itsastar petoa zetorrelako ez, baina ur hotzak ikaratuta eta ito larriak estututa atera baitzen Mundo txikia hain indartsu ur gainera. Uretatik eta itsaso guztietatik ihes egin nahian atera zen hain bizi, hain gartsu.

"Bm! Zein mundutara jausi naiz barraban hauen artera" pentsatu zuen seguru asko, izuaren izuz, Raimundo hankagorriak. Baina, pentsatu arren, ezin esan; ezin azaldu haserrea, protesta, negarrez ezean. Eta negarra, haurraren denean, zer da?

Euren ustean tinkotuta geratu ziren urbietarrak, belaunaldiko arrantzalea jaio zitzaielako an. Mundo bera zen egia gordinaren jakitun bakarra; esperientzia txar bat izan zen pasarazi ziotena eta harrian zizelkatuta bezala geratu zitzaion grabatuta memonan.

Gerora, haurtzaroaren gozotik urrundu eta gizondu ahala, mundu guztian ibili zen Mundo, urez gehiago lehorrez baino, baian ez zuen igerian ikasi. Eta igerian baldin bazekien, uretara jausten txahalak, idiak edo zezenak egiten duan moduan igeri egiteko gai baldin bazen, Mundo ez zen horren jakitun txahala, idia edo zezena baino gehiago. Ez zuen frog-

arik egin nahi. Itsasoan ibili bai, eta itsaso zakarretan gainera, baina ontzian. Hankarik busti gabe, esaten denez.

"Ura, belaunen azpitik" pentsatzen zuen bere artean. Beldurra zion hortik gorakoari. Jaioberritako esperientzia hura zeukan.

Inork ez zekien ordea urbietan, pentsatu ere ez halakorik, Mundok igerian ez zekienik. Arrantzale ona ez baita ezinbestez igerian ondo egiten duena, igerian egin beharrik gabe mol~atzen dakiena baizik.

– Antzinako sasoiak ere gurekin daramatzagu hemen gabiltzan bitartean; geureak dira, geure puska eta osakin. Haiek gabe, ez genekike pausoa nora eman, zein bide hartu -esan zuen Asmodeok, Mundo bere burutazioetan trabatuta geratu zela ohartuta.

– Urbietako sorabideetan gaur ez dabil uztar-idirik, eta lehenaren memoriak ez ditu lurrak goldatuko -erantzun zion lehor samar, baina paparrean zeukan anbar koskorra oratuz itxi zuen eskua, iraganari helduz hain zuzen.

Itsas uretako ak ziratekeen bestalde, urbietar mendialdekoak baino, Mundók gogoan zituen sorabideak; idiak, berriz, izurdeak seguru asko.

– Ididrik ez da inon ageri, eta uztarri ak ezkaratzeetan daude zintzilik ipinita, irainaren erakusgarri. Goldeak aspali urtu zituzten…

Etsipen airea zuen Mundoren armoniak.

– Kateak egiteko urtuko zituzten -tartekatu zuen Lukario-; zer loturik ez edukitzea nahikoa baitu zenbaitek katea nahi izateko.

– Behar izaten dira kateak ere -eten zion Asmodeok-. Burdinezkoak, urrezkoak, zinezko ak edo balizkoak… Lotura gotorraren irudi dira batzuk, dotoreziarenak besteak. Idia lotzeko batzutan, zakurra atarian atxikitzeko bestetan; paparrean erakutsi nahi izaten dute batzuen katea, armarri an besteek… Kateak nonahi.

– Kate gehiegi, esango nuke -ebaki zion Luxiok-. Eta aski ez, hala ere, katean egon nahi duten guztiak haitzari lotzeko.

– Katean egon nahi? Zeinek. egon nahi du katean? Katearen irudiak berak ez al digu esaten aske izan behar dugula? Horrela uste izan dut beti, eta horregatik abiatu naiz aurrean aurkitu izan nahi dudan edozein bideetatik, lurrez edo urez -berotu zen Mundo.

– Abiatu bai, baina urbietara itzultzen zinen behin eta berriz, ezta? -berriz ere Luxiok.

– Baina zertan gabiltza! -areago ernegatuta Mundok-. Joatea eta nahi duzunean itzultzea eta berriro bidea hartzea, kateak etetea da hain zuzen. Eta kateak etetea da askatasuna.

– Eta hona etortzeko, zer kate eten duzu? -galdetu zion artez, ordura arte isil samarrik zegoen Xeberok.

Luxioren esanak sutu zuena, Xeberoren galderak itzali zuen Mundorengan, baina ez txinpartak amatatzeraino. Mututu egin zen gizona, begiak gorri, eta paparreko anbar koskorra haztatu zuen alkandora gainetik.

"Mundua korritu duen gizona horrela trikutu? Zer ezkutatzen ote du, alu honek?", egin zuen Luxiok berekiko. Igarri egin zion zerbait.

Izan ere, urez eta lurraz bide luzeetan abiatu eta joan bai, baina atzera etxera itzultzen zen Mundo beti, emaztearen ondora. Mundu zabalaren ikusgarritasunari baino gozoago irizten zion, tarteka bazen ere, etxe txoko gordeari, emaztearen abaroari batipat.

Nola ukatu behar zuen abaro horri lotuta zegoela, kateak zituela berak ere? Kate malguak ziren beharbada emaztearen eta bien artekoak, elkarrengana lotu eta besteengandik askatu egiten zituztenak, baina kateak!

Lotura hartan nahikoa ziren biak bakarrik, beste inor gabe. Seme alabarik ere ez. "Seme-alabak mundu honetara?" galdegin zion behin baino gehiagotan bere buruari; "ez al da hobe inoiz jaioko ez direnen zoria? Ederragoa dateke haien unibertsoa, gure ilunpean amildegirik gabea".

– Emaztea baino lehen hilko naizela pentsatu izan dut beti- ekin zion Mundok soseguz-; askotan gauzak ez dira pentsatu moduan gertatzen, egia da. Hau edo hori pentsatu eta, ez hau ez hori, bestea gerta liteke. Esango nuke propio aldatzen dela batzutan etorkizuna, okertu egiten dela geroa, norbera izorratzeagatik, eta orduan planak gaizki ateratzen dira.

– Zergatik pentsatzen zenuen emaztea baino lehen hilko zinela zeu? -galdegin zion Lukariok.

– Horrelakoxe pentsatu nuen eta kito; pentsatu edo … ez dakit.

– Eta bera hil aurrena! Horregatik etorri zara orduan Galduen Ostatura-Xeberok.

– Ez! Ez zen hil! Alde egin zuen, hara! Maite ninduela eta maite ninduela; maitasun horrek etxeratu ninduen mundutik. Berarentzat izan nahi bainuen, neuk ere maite nuelako. Mundualdi hau eta gero ere maitasun horrek iraungo zuela esaten zidan. Baina maitasuna ez da harrizko esertokia, dakizuenez, eta pentsatu nuen pausalekurenbat, maitasunak nire hemengo mundualditik harago. Orduan esan nion, hain maite ninduenez, lurperatu edo errauztu ordez hertu eta nanotu zezala nire gorputza hiltzen nintzenean, eta nire gorputz nanotu hori ipini zezala etxeko salan, beira-arasan dauzkan portzelanazko irudien ondoan, beti presente eduki nazan…

– Momifikatuta gorde zintzala, alegia-ebaki zion Luxiok.

– Maitasuna den esentzia lurrunkor horrentzat atxikigarri aproposena igoal ez da izango irudi momifikatu bat, zure emaztaeren antropologia jakinminak gorabehera.- Lukariok zirika.

– Ez, momifikatu ez; hori ere ez da. Nanotu, soin osoa hertu eta haur jaioberri baten tamainara txikitzea, horixe da esaten niona - Mundok-.

Mundualdi honetatik harago, betierekotasunean irauteko modu bat nekusan horrela, sugandila eta txinaurri anbarrean atzituek legez. Heriotzat dakarren akabua eta demaigun ito larria gainditzen laguntzan dit burutazio horrek. Baliteke, bestalde, emazteari maitasun froga egin nahi izatea ere, hau aitortzea astunagoa zaidan arren.

– Ez dago gaizki- Txarabek albotik-; salako beira-arasetik emazteari begira eta munduari zelatan geratu nahi zenuke, beraz, betiereko.

– Horrela daude txinaurriak, eltxo ak, muskerrak… -erantzun zion Mundok, eta paparrean zintzilik zeraman anbar koxkorra erakutsi zien alkandorapetik aterata.

Antzar arraultzaren antzeko anbar koxkorrean musker bat zegoen bizi-bizirik zirudiena, alde batera eta bestera mugituz eta argiaren arabera begirada ere harahona zuzentzen zuena.

– Ikusten? -Esan zien Mundok, anbarrean bildutako muskerrari begira zeuden bezeroe- Honek besalaxe begiratu nahi nieke neuk ere emazteari eta inguruari mundualdi honen jarraian, eta ez harlauza baten azpian itsututa geratu.



Haimar Altuna Ijurko
Ibarra

2005.an atxilotuta.

Salon de Provence - Centre de Détention
B.P. 369
13.668 Salon de Provence Cédex

QUARTIER DISCIPLINAIRE

Zigor ziega, mitard eta horrelako izenekin ezaguna, isolamendu ziegarekin zerikusirik ez duena.

Isolamendu ziega ziega arrunt bat da, eta zure gauza guztiak edukitzeko eskubidea duzu. Mitard'ean berriz, idaztekoa, irakurtzekoa eta gorputza garbitzeko beharrezkoak diren gutxienekoak izateko eskubidea dago, hau da; hortzetako pasta, jaboia eta komuneko papera. Halere honi guztiari gehitu beharko genioke beraiek ez dutela deus ematen eta beraz soilik aurrez zuk produktu horiek izan ezkero eskura ditzazkezu.

Azpimarratu nahiko genuke azaldutakoa teoria dela, azkenfinean guztia kartzeleroaren umorearen arabera izaten delako.


Arropari dagokionez jantzitakoarekin bakarrik egon ahal zara.

Astean hiru aldiz dutxatzeko aukera dago eta dutxara joatean barneko arropa aldatzeko eskubidea dugu, ez besterik.

Zigor ziegara sartu aurretik mihaketa orokorra egiten dizute, horretan ordularia kentzen dizute eta zure buruz beste egin dezakezunaren aitzakiaz, oinetakoen kordelak, gerrikoa, galtzen eta jertseen kordela, lepokoak...


Ordularia kentzeari dagokionez esan genezake, zentzurik ez izateaz gain, denboraren neurria galtzea eta ondorioz presoari psikologikoki eragitea da.

Gure aldetik esan neurri honi aurre egiteko modua umorez hartzea izaten dela. Adibidez siesta egitean ez dakizu 5 minutu edo 3 ordu egin dituzun. Gauean ere berdin komunera joan behar izan ezkero ez dakizu gauerdia den edo iada esnatzeko ordua.



Erosi ahal dituzun gauza bakarrak, beti ere astean behin, tabakoa, idazteko beharrezkoa (kuaderno ttipi bat, zigiluak, gutunazalak eta boligrafoa), komuneko papera, txanpua eta hortzetako pasta (zepillorik ez !).

Soilik kartzeleroek ematen dizuten janaria jaten duzu, honek esan nahi duelarik ezin dela ez deus ertosi ez eta aurretik erosiak dituzun produktu guztiak berreskuratu ere, non barazki guztiakhotzgailuan usteltzen geratzen diren. Normalean baino ordu bat arinago banatzen dute bai 0-tan eta arratseko 17:00-tan. Janaria hoztu ez dadin berehala jan behar da.



Egunean ordu beteko patioa izateko eskubidea dugu, bainan ordularirik ez dugunez, honen iraupena auskalo! Preso bakoitza bakarrik egoten da 12x2 m. dituen lau hormatako kaiola moduko batean, non sabaiak tarteka sare lodi bat duen eta zorte apur batekin eguzkia ikusi daiteke. Egunero patiora joatean presoak mihatuak izaten gara eta 24 orduetan ez da beste presorik ikusten, soilik kartzeleroak ikusten dituzu zigortua zaren egun edo aste horietan.

Zorte apur batekin sendagileak astean behin ikusi ahal zaitzake, baina beti ere, segurtasunaren izenean, "kaiola" deritzoigun barrotezko atearen atzetik.

Kaiola honen funtzioa hori da, ziega barneko beste ziega bat, animaliak baginan moduan.

Goizean gutunak ematean ere, kaiolak dituen zirrikituetatik eman behar diegu kartzeleroei.

Lehioak ere bere neurriko kaiola du, lehioa zabaltzea ekidin eta honen ondorioz ikusmira erabat gutsitzen du. Hain daude lehio hauek zikinak, non urteetan ez diren garbitu, kanpoan eguzkia edo lainoak dauden bereiztea zaila izaten dugula. Honen ondorioz ere ziegara ez da inongo argitasunik sartzen.

Kontuan izanda idaztea eta irakurtzea dela egin daitekeen gauzik bakarrena, eta horretarako argiak duen garrantzia ikusirik, ez du zentzurik ziegako argia " kaiola "-ren barnean egotea non ia argi guztia bertan geratzen den eta ondorioz ziegan itzala den zatirik handiena.

Lehen aipatu moduan kartzeleoak umorez egon ezkero, normalean gutunak eta egunkariak jasotzeko eskubidea dugu, noski guztia betiko atzerapenarekin, egunkarien kasuan 5/10 egunekoa.

Marrazkian ikusten den moduan ohea, eserlekua eta mahaia lurrari itsatsiak daude, non kuriositate moduan esan genezake eserlekua oporlanezko zilindro bat dela.



Xabier Aranburu Muguruza
1962
Usurbil

1991. urtean preso hartu zuten.

Prisión de Herrera de la Mancha
Apdo. 77
13.200 Manzanares
Ciudad Real

ERRAUSKETARIK EZ

Doinua: Bederatziko motza (Betroiarena)
Egilea: Basajaun

Donostiko plenoan
Bada komeria
Argi erakutsiaz
Jauntxokeria
Herriari ezkutatuz
Beren mixeria
Erabaki dutena
Ez da zilegia
Hautsirik legia
Hauxe da egia
Da astakeria
Edo trajedia
Eraiki nahi diguten
Erraustegia

Erraustegiak dauka
Hamaika zirritu
Hondakinik ezin du
Guztiz suntsitu
Bakarrik eraldatu
Egiten baititu
"Toxikoa" izanik
Sortutako fruitu
Nola ez harritu
Edota larritu?
Herria aditu
Zioak baditu
Burugabekeria
Azkar gelditu

Errausketa plantaren
Kalamitatea
Kopla honetan merezi
Du esatea
CO2-z lepo izango
Luke zerupea
Hainbat gaixotasuni
Irekiz atea
Holako atakea
Pozoinez betea
Birikak nekea
Gibelak kaltea
Gure osasunarentzat
Errematea

Ai! Ze jatorrak diren
Esaten digute
Hamaika politikoak
Urterik urte
Eskrupulorik gabe
Harro dihardute
Duintasuna galdurik
Diruaren truke
Izatea putre
Ote da bertute?
Lotsarik ez dute
Ta esango nuke
"Interes ezkututan"
Sendo diraute

Agintari zenbaitzuk
Damaigute pena
Garapen itsua da
Euren eskema
Gurpil-zoro horretan
Bizitzan barrena
Erakutsi nahirikan
Nor den azkarrena
Horrek dakarrena
Lurrik ederrena
Txikitzen dena
Sortuz hondamena
Horri deitzen diote
Aurrerapena

Plataformek daukate
Plangintza jatorra
Filosofia zuzen
Baten enborra
Naturak behar duen
Neurriko atorra
Alternatiben xenda
Deritzan alorra
Horrelako obra
Beharko da ondra
Gogotikan jorra
Izan dadin, horra!
Jauntxokerien kontra
Eraginkorra

Alternatiba honek
Bedeinka gaitzala
Eskaintzen duelako
Bide zabala
"Plan gidatzailea da"
Beraz, ideala
Altzoan bost helburu
Fin daramatzala
Nahi nuke seinala
Jarri behar dala
Nola edo hala
Martxan berehala
Garai hauek eskatzen
Duten bezala

Birziklapena dugu
Aske bedeinkatu
Berrerabilpena ez
Baita bekatu
Hondakinak murrizten
Gogotik saiatu
Gai organikoekin
Jokatuz ondratu
Ohiturak aldatu
Jan sobra oro batu
Gordina apartatu
Eta konpostatu
Lurrak eskertuko du
Ezin ukatu

Plenoko komediak
Badu konponketa
Okerrak zuzentzeko
Harturik beta
Herriak dionari
Jarriaz arreta
Bost aldiz esan du-ta
"Ezetz errausketa"
Natura errespeta
Orbel ta erreka
Zuhaitzez beteta
Birikak dira eta
Paradisua baita
"Artzabaleta"

ARGI-GOSE

Espetxeko zoko-mokoetako
Ziegarik ziztrinenean
Dagoen presoaren begirada
Argi-artifizial itogarriari
Izkin eginez ibiltzen da
Argi-naturalaren gose
Aseezinak bultzatuta.
Uneoro bilaketa itsuari loturik,
Egonarriz lapurtzen ditu
Eguraldi kopetilunetako
Hodeien zirrikituetatik ospa
Egindako argi-izpi zurbilak.
Trebeki arrantzatzen
Itsaso koloreko egunsentiak
Olatuka dakarzkion
Argi-printza dirdaitsuak.
Begibetean bereganatzen
Gau oskarbietako zeru basatian
Kulunkan dabiltzan altxorren
Argitasun distiratsuak.

IMMIGRAZIO LEGEA

Doinua: Haizak hi mutil mainuntzi
2009ko Santixabel bertsopaper lehiaketa. 2. Saria.

Afrika aldetik nora?
Etorkina edonora
Amesten duen bizi berria
Egin dadin lora
Baina bidaia izango da
Hil edo biziko froga
Kayuko asko joan dira ta
Itsaso hondora

Europak lotsa du gutxi
Pakean ezin ditu utzi
Immigranteez lepo datozen
Hinbeste itsasuntzi
Egoera nahi du hautsi
Haserreari ezin eutsi
Immigrazio lege berri bat
Ezkar du erdietsi

Inmigrazio legea
Ez da gizalegea
Nagusitzen da aberatsaren
Fede xelebrea
Pobreei jarriz hedea
Gizon eta anderea
Bihurtzen dute eskubiderik
Gabeko aberea

Beltza eta ijitua
Zuentzat egokitua
Da lege berri honek dakarren
Lan esplizitua
Arrazismo ukitua
Ariman duen fruitua
Paperik gabe egonez gero
Baita delitua

Non dago adimendua
Non da begiramendua
Immigrantea atxilotzeko
Emanda agindua?
Sentitzen da ezindua
Umilatu ta iraindua
Askatasuna kendu dioten
Langile mindua

Kartzelara bidalita
Mesprezu eta errita
Egiten zaio gaizkilearen
Pareko jarrita
Kezka dabilki jarraika
Mendekua dauka zait-ta
Izurri-beltza balu bezala
Kanporatzen baita

Hegazkinean sarturik
Burua txit makurturik
Hamaika etorkin aurkitzen da gaur
Tristurak harturik
Begirada abaildurik
Etsipenean galdurik
Bizitza berri baten ametsa
Guztiz zapuzturik

Europaren interesa
Dabil hartuta laineza
Etorkinaren uxatzeari
Emanez babesa
Ez da ulertzen erreza
Humanitaterik eza
Hau da pobrea ez maitatzeak
Dakarren bajeza

EUSKAL HERRIAZ MAITEMINDURIK

Hamar eta hamabost urte daramatzazue
Etsaiak maltzurki prestaturilo
Txarrantxazko itsasoetan nabigatzen,
Maitemindurik zaudeten Euskal Herriak
Urruntasunaren labarrak deseginez
Igorritako maitasunezko taupadekin
Eraikitako txalupan.
Etsipenaren zurrunbilo bihurrietan
Jitoan edo noraezean ez ibiltzeko,
Sufrimenduaren arrasto minberak
Uberaren ispilu lausotan ez betikotzeko,
Edo laino beltzez osaturiko
Ameskaiztoen ohantzean ez erortzeko,
Noiznahi sortzen diren haizeteei,
Korronteei, olatu erraldoi bortitzei,
Ustekabeko ekaitz zitalei…
Branka emanez darraizue gupidarik gabe.
Batzuetan ilargiaren babesean,
Bestetzuetan eguzki-izpien laztanen abaroan,
Begininietan iparraren izarra tatuatuta,
Itxaropenaren bela zabalik eta
Bizi-tanten kresalak blaitzen zaituztela,
Aurrera zoazte lema zuzen gidatuz
Askatasunaren portua amets.

TELEFONOZ SOLASEAN

Telefono sorginaren bidez
Hitzegiten didazunean,
Hitzak erditzen dituzun
Ahots zerutiarretik,
Ezpainetan loratzen zaizun
Irriaren oskorritik, izarrak diruditen
Begi urdinetatik,
Eguzki bihurtutako
Bihotzetik…
Zeru beteko argi-printzak
Isurtzen zaizkizu,
Xehe-xehe,
Osaba kokatuta dagoen
Iluntasunaren infernuan
Trinkoturiko
Elur beltza
Lurmentzeraino.



Joseba Lerín Sanchez

Txantrea, Iruñea

2007an atxilotuta.

C.P. JAÉN II
Carretera Bailén-Motril Km.28
23.009 Jaén

BIHOTZEZ ETA MAITASUNEZ

Hau da inoiz idatzi nahi ez nizun gutuna, hau da inoiz jasoko ez duzun gutuna. Hau gutun bat bada. Hala ere une hauetan eta burmuina zein gorputza osatzen ari zaren honetan zure ondoan agertu nahi izan dut.

Asko da hitzegiteko duguna eta gehiago da eskertzeko dudana. Bakarmena ere eskatu beharko nizuke, une batez ere berriki pasa duzun inpernutik ezin atera izanagatik. Espero dut aurrerantzean maiz handikan ateratzea, ametsetan bada ere, espero dut eta benetan nahi dut.

Erraten nizun asko nuela zuri eskertzeko eta etzazu pentsa errateagatik nioenik, azken finean nik bizirik narrai zu bezalakoei esker, dena nigatik ematen duzuenengatik. Nirekin euskaraz hitzegiten hasi zinenetik umetan jolasten, bihurrikerietan, orain arte asko da elkarrekin pasa duguna. Inoiz edo inoiz, badakit pentsatu duzula kale egin didazula baina lasai egon zaitez, inoiz ez da horrela izan. Nik orain sentimen berdina daukat, zenbat oroimen onak elkarrekin, zenbat une goxoak eta latzak barrikadetan, zenbat amets, zenbat… Eta nik ezin ezer egin pizti horien eskuetatik sikiera une batez libratzeko, sentitzen dut.
Jarri nizun lehenengo hitzordu hartara zu hain zintzo agertu zinela eta beti hain fin ibili zarela. Beti izan duzu niretako zure irrifarrik onena, unerik txarrenetan ere. Beti alai dena emateko prest nori eta niri inoiz ezin izanen dizudala eskertu ez bada egun batean zure askatasun grina asetzen.

Inolaz ere ez dut nahi hau gutun goibela izatea. Goibel egoteko hamaika arrazoi bada baina oraingo honetan berriro nitaz fidatu eta barruan duzun amorru eta ezinegon guztia botatzeko negar egin nahi edo behar baduzu lasai asko egin ezazu. Muxugorri horietatik behera erortzen zaizkizun malko horiek ez dira alperrikan isuriko, ni zainak bezala zeharkatzen nauen borroka elkartuko dute.

Nik badut eta eskarmentu egoera honetan, zoritxarrez. Hamaika dira mundu osoan zehar etsaiarengandik ihesean bere hatzaparretan erori direnak: Quebeken, Mexikon, Belgikan urte luzez bere konpromezua larrutik ordaintzen. Badira beste batzuk ohe batean krudelkeri osoz erahilak izan direnak. Beste batzuk ziega ilunetan etsaiak hozkeriaz urkatu ditu eta gero hoiexek dira etikaz mintza nahi digutenak. Zer erraten dizut borroka honetan hil dizkidaten seme-alabek nire bihotzean utzi duten hutsuneaz. Negar asko egin diet, ezin ahantzi nabil eta horregatik da bihotza minduta didatela. Errobi bezalako ibaiak nire mendiak berdatzen dituzten artean ez da ezer izutu ahal nauenik, ez iluntasunik, ez ixiltasunik, ez heriotzarik baina. Badakit behin eta berriro Pasaiako badian, Karakasen, Morlansen edota Baionan Ttipian eroritakoen eredua zu bezalako lagun askorengan loretuko dela erakutsiz ni ez naizela egun bakar bakaneko lorea. Bidean gelditu direnak, bizitza eskuartean lehertuta edo komisaldegietan torturapean hil direnak irrifarra jartzen didate bihotzeko mina arindu nahian. Etsaiak ez du lortuko ni menderatzea, zorra handia da zurekin dudana inoiz amore emateko. Hori da nire askatasunaren aldeko borrokan erori diren seme-alaba kuttunei egin ahal diedan omenaldirik onena. Beraien izenean dauden txokoen eta plazen izenak ezaba ahal izanen dute baina inoiz ez didate beraien oroimena lapurtuko. Kare bizian lurperatu nahi izan naute eta ezinean beti.

Horregatik diotsut gaur dena ilun ikusten baduzu utzi hainbestetan bide lagun izan duzun ilargiari agerpena egiten eta joatean egunsentiak beste egun berri bat ekartzen digunenan lehiotik so egin ezazu eta ikusiko dugu aurrera egiterik badela, beharra.

Hauek hitz eginak, hutsak, iruditu ahal zaizkizu baina ez da horrela, badakizu nik bihotz aratza dudala, beti zuzen jokatzen dudala eta hau idatzi baino belarrira xuxurlatu nahiko nituzke. Orain nahi dudana da zu ahalik eta hobekien egotea. Ahal den azkarren osatu eta buruan dituzun erru sentimen horiek alden ditzazula inpernua behar baino gehiago ez luzatzeko, etsaiaren jokuan ez erortzeko. Konturatu orduko maite

zaituztenek besarkatuko zaituzte eta aurrean dituzun hesiak nahi besteetan gainditzen lagunduko zaituzte. Etzazu dena sasiko bidetzat hartu behar izan duen burkidearengandik, harro sentitu baizik. Zu berarentzako indarra eta kemena izanen zara.

Asko luza ninteke gutun honekin baina uste dut hitz hauekin lagunduko zaitudala egokitu zaizun borroka honen alderik txarrenean lehenengo pausoak ematen. Ez zaizu erraza suertatuko egoera berri honetara egokitzen, badakit, baina beti erakutsi duzun irmotasun berdina oraingo honetan erakutsi beharko duzu. Zuk ederki asko bazenekien borroka hau gogorra izanen zela baina, hala ere, beti aurrera egitea erabaki zenuen. Orain bere hatzaparretan ez da amore emateko ordua, bai ordez borrokan jarraitzeko.

Agurtzeko ordua heldu da, une hauetan agurtzea ez zait batere goxua suertatzen baina egin behar dut. Egonen gara, beti zure bihotzean izanen nauzu gau ilunean hitz goxo batekin zein egun eguzkitsuenetan begi keinu batekin. Inoiz ez zara bakarrik egongo. Maite zaituztet! Gora zuek!



Urrezko eguzki distiratsua heldu zen,
Ilundutako zeruetan zehar,
Gatibua aretsetatik iratzarriz,
Bere begien gainera jeistean.
Askatasunaren bidea zuen argitu,
Larretxori kanteriari agindu,
Kimu negarti bat eraman zezan,
Ilunpeko lorenganа. (...)

"Kamaradak iluntasunean"
(BOBBY SANDS)

ataramiñe